

DROGARI BURUZ GOGOETAK

Manuel LEKUONA'K

Bi Kriminalojia ditugu. Bata zaarra; Kriminalojia «tradizionala» esaten zaiona; eta bestea berria, Kriminalojia «kritika» esaten zaiona. Bion arteko diferentziak ikusi bear ditugu orain.

1.º Gaurko egunean drogak sortzen dituan problemak –naiz eremu nazionalan, naiz internazionalan– ezin askatu ditezke bear bezela, ez Espaiña'ko legeen, ez Espaiña'tik kanpoko legeen bidetik, ez-eta leengo Krimino-legeak ematen dituzten erremedioen bitartez ere.

2.º Drogaren problematikak ikutu ta zer ikusi aundiak ditu, beti izan ditu, eta orain ere bai –Ekonomiarekin, Politikarekin, Osasuntasunarekin, Krimenkeriarekin, gazteen Kulturarekin, Atsedeen-aldiarekin, Sub-Kulturarekin etab. etab.; bera-gatik bearbearrekoa da bir-estudio berri bat egitea Kriminalkeriaren ingurumarian. Bear-bearrekoa da Espaiña'n. Gobernoaren Presupuestotik, drogaren Problematika aztertzeke Katedra batzuek ipintzea Deretxo-Fakultadetik aparte; orain arteko Kriminalojia Deretxo Fakultadearen zati bat besterik ez bait da izan.

3.º Drogaren Problemarik estuenak aska ditezke, KRIMINALOJIA KRITIKA'ren bide bikoteari jarraituaz: Teori-bideak eta praxis-bideak.

A. Orain arteko erakutsiak eta praktikak, baztatu: baztatu lanbide ahistoriko, indibidualista eta apolitikoak.

B. Erakutsi ta praktika berri batzuek asmatu. Drogaren izaeraren IKUSBEGIA ALDATU –drogaren luze-zabalera politiko, sozial, ekonomiko etab. etab.

Eta ori lortzeko:

I. Drogarekin artu-emanik duten Kontrolak bir-aztertuak izan bear dute, Kriminolojia Kritikaren argitan.

Ez, ordea, gizona krimenaren silluaz markatua uzteko, krimenaren mendetik askatzeko baizik, baita mendetasun ortan bera eroria badago ere.

II. Legeak krimen-izenetik garbitu bear ditu zenbait egoera eta ariera, gaur drogaren lurrean krimen-izenez zikindurik daudenak.

III. Konkretuki gaur Espaiña'n

Codigo Penalean

eta Ley de Peligrosidad

eta Rehabilitacion Social

deritzaten Legedietan bir-esamiñatu bearrak daude, drogari dagozkien Artikuloak, oker konprendituak izan ez ditezten.

La Ley de Peligrosidad'ek eta Rehabilitacion social'ek, berriz, kendu bear ditu «predelictuales» esaten zaien ariera guztiak.

Eta, *Ley del Contrabando* deritzan Legean sartzen bait dira gaur, drogaen inguruan dabilzan zenbait delitu –Legearen testoa *Ley General Tributaria'ri* egokitua 1964'gn.urtean argitaldu bait zan –gaur berri-berritu eta birrargitu bearra dago.

IV. Drogaren inguruko Lege berezi guztiak, kendu bearrak dira. Eta *ne bis in idem* dion esaera, osorik gorde bearra izango da.

V. Juez antzeko Agintariak bildur-izan bear dute, justizia egitekoan –Legearen konprendi– bidean, alegia, eta Legea iñori ezrtzekoan– zuzen ote dabilzan, ala politikaz edo Agintaritzaren geiegiz.

VI. «Medios de informacion» diranak –periodikoak, radioak, telebistak etab.– jendea ondo oitu bear dute eta ondo informatu –gaurko eguneko ezagueran–era guztietako drogaen alderdi on eta txarrak nola diran erakutsi, alegia. Eta drogaren kalteak eta kontrako kastigoak baño arago argitu drogaren atzaparretatik azke ta libre izatearen edertasun eta bentajak.

VII. Politika Orokarrak alde batetik eta Kriminalojia Politikoak bestetik, konturatu bear dute, bi-biok gaurko egunean alderdi baten alde eta bestearen konkra ibilli oi dirala: indartsuaren alde eta indargabearen kontra. Drogadikto errukarriak eta erri txikietako dendari koxkorrak pagatzen dituzte «Drogaren Aitajaun Aundiak» –Internazionalak– pagatu bear lituzteken multa ikaragarriak. Drogaren problemak menderatzeko, gaurko errietan gauzak –estrukturak– asko ta asko aldatu bear dute, bai Ekonomian, bai Politikan, bai Kulturean. Olaxe aitortu du «Naciones Unidas»eko Boskarren Batzar Nagusiak, Krimenaren «gutxierazmenaz» eta delitogillearen «tratamenaz» mintzatu danean.

4.º Kriminologoak aztertu ta jorratu bear dute drogaren «azpijorran dabilzan ezkutu-tratuak eta irabazi zikiñak. Jorratu ditzakete, baita, gauza ortan naasten dan Filosofia eta Etika ere; jorra eta azterketa ori gabe «Derecho Penal» eta «Criminalojia» llerri eta Kanpo Santu dana, orrela biur bait litezko Udaberri oparo eta iori-iori.